

ZENTRO KOMUNITARIOEN
ERABILERA ETA
FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA



2025eko azaroa

Edukia

I. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOAK. DEFINIZIOA, XEDEA ETA HELBURUAK	4
1. artikulua. Definizioa	4
2. artikulua. Xedea	4
3. artikulua. Helburuak	5
II. TITULUA. KOLEKTIBO ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	5
4. artikulua. Kolektibo, entitate eta pertsona erabiltzaileak	6
5. artikulua. Sarbidea erabilera jarraituko kolektibo gisa	6
6. artikulua. Erabilera jarraituko kolektiboen baja	7
7. artikulua. Zentrorako sarbidea erabilera puntualetarako	7
8. artikulua. Kolektibo eta pertsona erabiltzaileen eskubideak	7
9. artikulua. Kolektibo eta pertsona erabiltzaileen betebeharra	8
III. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN JARDUERAK	9
10. artikulua. Xedapen orokorrak	9
11. artikulua. Irabaziak	9
12. artikulua. Zentro komunitarioetan, eta Iruñeko Udalaren titulartasuneko gainerako zentro guztietan, debekatuta dauden jarduerak	10
IV. TITULUA. FUNTZIONAMENDU ARAUBIDEA. XEDAPEN OROKORRAK	10
13. artikulua. Guneen ezaugarriak	10
14. artikulua. Biltegiatzea	11
15. artikulua. Erabilerarako eta funtzionamendu onerako arau orokorrak	11
16. artikulua. Erabilerarako eta funtzionamendu onerako arauak ez betetzea	12
17. artikulua. Informazioa eta komunikazioa	12
18. artikulua. Guneen erabilerarako prozedura eta egutegiak	13
19. artikulua. Sarbide irizpideak	14
20. artikulua. Lokaletara sartzea	15
21. artikulua. Ordutegia	15
22. artikulua. Kontserbazioa, mantentze lanak, erantzukizuna eta jasangarritasuna instalazioen erabileran	16
V. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN KUDEAKETA	17
23. artikulua. Kudeaketa Batzordea	17

24. artikulua. Kudeaketa batzordearen osaera	17
25. artikulua. Kudeaketa batzordearen funtzioak	18
26. artikulua. Kolektiboen Batzarra.....	19
27. artikulua. Iruñeko Udalaren funtzio eksklusiboak	19

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOAK. DEFINIZIOA, XEDEA ETA HELBURUAK

II. TITULUA. KOLEKTIBO ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

III. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN JARDUERAK

IV. TITULUA. FUNTZIONAMENDU ARAUBIDEA. XEDAPEN OROKORRAK

V. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN KUDEAKETA

XEDAPEN GEHIGARRIA

XEDAPEN IRAGANKORRA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA. INDARRALDIAREN HASIERA

ZENTRO KOMUNITARIOEN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Iruñeko Udaleko zentro komunitarioak herritarren parte-hartzerako, bizikidetzarako, kudeaketa kolektiborako eta auzo dinamizaziorako guneak dira, hiriko auzoetan gizarte ehuna eta kohesio komunitarioa indartzera bideratuta daudenak. Zentro komunitarioen funtzionamenduak etengabe egokitu behar du herritarren gizarte, kultura eta antolamendu beharretara, bai eta herritarren partaidetza ereduetan eta kudeaketa publikoan jazotako aldaketetara ere.

Gizarte Ekimeneko Zentro Komunitarioen (GEZK) erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzak —lehenengoak, 1998an onartu zenak— hasierako arau esparru bat sortzea ekarri zuen berekin, eta horri esker, gizarte eta auzo kolektiboen jarduerarako espazio publikoetarako sarbidea antolatu ahal izan zen. Testu aitzindari hori herritarrek udal azpiegiturak erabiltzea instituzionalizatzeko lehen urratsa izan zen, gizarte zibil antolatua gero eta parte-hartze handiagoa eskatzen zuen eta.

Geroago, *2019ko ordenantza* 1998ko erregulazio haren zabalkuntza eta gehigarri izan zen, zentro komunitarioetarako ereduari garapen eta zehaztapen handiagoa eman baitzizkion, parte-hartzean, gardentasunean eta guneen kudeaketa gizarte ekimenaren eta Udalaren artean partekatzean funtsatutako ikuspegi batekin.

Azken urteotan, zentro komunitarioen sarea nabarmen hazi da, nola kopuruan hala dinamismoan; izan ere, auzoetako bizitza komunitarioaren funtsezko azpiegitura gisa finkatu dira. Hazkunde horrekin batera, ohargarriki handitu dira zentro komunitarioetako jarduerak, bai eta halako zentroak erabiltzen dituzten pertsonen eta profilen aniztasuna ere: auzo entitateak, kultura elkarteak, gazteen kolektiboak, elkarri laguntzeko sareak, talde informalak, adinekoak, migratzaileak, etab. Bilakaera horretan, erabilera dinamika berriak sortu dira, eta antolaketa premiak zein kudeaketa erronkak; beraz, beharrezkoa da ordenantza berrikustea, egungo errealitatera egokitzeko eta tresna erraztaile gisa balioko duela bermatzeko. Horrenbestez, ordenantza honek administrazio publiko ororen ahalmen arautzailea gidatzen duten printzipioei jarraitzen die, hau da, premiari, eraginkortasunari, proportzionaltasunari, segurtasun juridikoari, gardentasunari eta efizientziari.

Baiki, premia eta eraginkortasunaren printzipioei dagokienez, ekimen arautzaile honen zergatia da Iruñeko Udalarentzat interes orokorrekoa dela herritarrei eta kolektiboek parte-hartze,

bizikidetza, kudeaketa kolektibo eta auzo dinamizaziorako espazioak ematea, hiriko auzoetako gizarte ehuna eta kohesio komunitarioa indartzeko. Hala, ordenantza hau onestea da helburu hori lortzeko tresnarik egokiena.

Halaber, ordenantza onetsita, proportzionaltasun, segurtasun juridiko eta efizientziaren printzipioak aintzat hartuta egonen dira; izan ere, udal zentro komunitarioak erabiltzeko eskubidea duten pertsonen eta kolektiboen eskubideak eta betebeharrak ordenantza baten bidez araututa, udal baliabide horiek erabili nahi dituzten pertsonen erraz eta era gardenean ezagutuko dituzte eskubide hori baliatzeko bete beharreko baldintzak.

Ordenantza hau *Iruñeko Udalaren herritarren partaidetzarako erregelamenduan* ezarritako printzipioetan funtsatuta dago. Arestian aipaturiko erregelamenduak kudeaketa partekatua eta lankidetzak publiko-soziala aitortzen ditu, demokrazia lokala indartzeko, ondasun komunak kudeaketan herritarren inplikazio aktiboa errazteko eta udal baliabideen erabileran erantzukidetasuna sustatzeko mekanismo gisa. Era berean, *Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea* xedatutakoari jarraitzen dio, zeinak ezartzen baitu herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dutela, eta Administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzarako modu berritzaileak sustatzen ditu.

Ordenantza hau, gainera, gobernantza demokratikorako, herritarren parte-hartzerako, berdintasunaren sustapenerako eta jasangarritasunerako printzipioetan kokatzen da, eta Iruñeko Udalaren konpromiso estrategikoei eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuei jarraitzen die.

Aterpe klimatikoa kontzeptua sartu da; alegia, bero eta hotz izugarriko garaietan erosotasun termikoa eskaintzeko diseinatutako edo egokitutako gune publiko irigarria. Hala, herritar edo udal langileentzako baldintza klimatiko erosoetan egoteko guneak edukitzea ahal dituzte zentro komunitarioek.

Araudiaren eguneraketa honekin, Iruñeko Udalak konpromiso bat berresten du: zerbitzu publikoak etengabe hobetzea, herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzea eta zentro komunitarioak auzoetako bizitza soziala dinamizatzeko gune ireki eta inklusibo gisa finkatzea, hain justu ere.

Egituraren aldetik, ordenantza honek bost titulu ditu:

- **I. titulua:** zentro komunitarioak definitu eta horien xedea eta helburuak zehazten ditu, kontzeptu esparrua eskaintzeaz gainera.

- **II. titulua:** erabiltzaileen eta kolektiboen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, guneen erabilera ekitatiboa, errespetuzkoa eta arduratsua bermatze aldera.
- **III. titulua:** zentroetan gauzatu ohi diren jarduerak arautzen ditu, bai eta erabilera irizpideak eta egutegiak ezarri ere, interes orokorrari eta proposamenen aniztasunari arreta berezia eskainita betiere.
- **IV. titulua:** zentro komunitarioen funtzionamendu araubidea zehazten du, barne antolamenduarekin, koordinazioarekin, eremuetarako sarbidearekin eta gorabeherak konpontzearekin lotutako alderdiak barne harturik.
- **V. titulua:** zentro komunitarioen kudeaketari buruzkoa da, eta kolektibo erabiltzaileen eta Udalaren artean partekaturiko kudeaketaren ereduari heltzen dio.

I. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOAK. DEFINIZIOA, XEDEA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Definizioa.

Zentro komunitarioak udal titulartasuneko ondasunak dira, jabari eta zerbitzu publikokoak izaten ahal dira, edota ondarezkoak, eta Iruñeko auzoetan kokatuta daude. Auzoko auzo elkarte eta talde sozialentzat dira batez ere, interes orokorreko jarduerak egin ditzaten, esaterako, auzo sareen sorkuntza, elkarte bizitza eta emakumeen zein gizonen parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Udal titulartasuneko lokal horiek auzo erabilera balioaniztun eta inklusiborako espazio partekatutako dira, talde erabileretarako –irabazi-asmorik gabeetarako– sarbide librekoak eta doakoak, auzo baten barnean gutxienez lokal bat dutenak eta Iruña zentro komunitarioen sare batez hornitzen dutenak.

Herritarrek eta udal langileek aterpe klimatiko gisa erabiltzen ahalko dituzte bero eta hotz izugarriko baldintzetan.

Instalazio bakoitzak bertan egingen diren jardueretara egokitutako gutxieneko ekipamendua izanen du.

2. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea honako hau da: formalki eratutako irabazi-asmorik gabeko entitateek, irabazi-asmorik gabeko kolektiboek eta haiek antolatutako jardueretako parte-hartzaileek zentro komunitarioak publikoki eta modu irekian erabiltzeko baldintzak arautzea.

Kolektibo terminoa erabiliko da aurreko paragrafoan aipatutako erabiltzaile guztiei buruz mintzatzeko, barne hartuta kolektiboa osatzen duten emakumeak eta gizonak eta horien aniztasuna.

Udalak bermatuko du zentro komunitarioak gune irekiak, irisgarriak eta pluralak izatea, komunitatearen parte-hartzerako, herritarren sustapenerako eta gizarte inklusio zein elkarreraginerako.

3. artikulua. Helburuak

Ordenantzak honako helburu hauek ditu:

- Auzo entitateekin partekatutako udal erantzukizunetik abiatuta kudeatzea guneak, belaunaldiartekotasunaren, inklusioaren, kulturartekotasunaren eta generoaren ikuspegi batetik, kontuan hartuta emakume eta gizon guztien posizioa, premiak eta interesak, haien aniztasun osoan —adin, jatorria, kultura, desgaitasuna, sexua eta generoa—, bai eta haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia ere.
- Partaidetzan oinarritutako garapen komunitarioko gune bat garatzea eta egituratzea, belaunaldiartekotasun ikuspegia izanen duena (adin guztietako emakumeak eta gizonak), eta berariaz bermatuko duena emakumeek kudeaketan parte hartuko dutela eta eragina izanen dutela.
- Partaidetza plurala erraztea, kokatuta dauden auzoetako herri entitateei eta kolektiboek protagonismoa emateko, adin guztietako emakumeak eta gizonak gaituz beren autonomia indartu, eta auzoan inplikatzearen eta errotzearen zentzua sustatzeko.
- Gizarte eta auzo sareak sortu eta indartzea, eratze kolektiboaren bidez, aukera gutxien dituztenei laguntza emateko.
- Entitate soziokulturalen arteko informazio eta lankidetzarako dinamikak sustatu eta sendotzea.
- Komunikaziorako kanalak ezartzea auzo sarearen, kolektiboen eta Udalaren arteko informazio trukeak indartzeko, eta gizonen eta emakumeen ekarpenak eta beharrak kontuan izanik betiere.
- Beste udal alor edo entitate batzuek auzoetan sustatzen dituzten ekimen soziokulturalak osatu eta koordinatzea.

II. TITULUA. KOLEKTIBO ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

4. artikulua. Kolektibo, entitate eta pertsona erabiltzaileak

Zentro komunitarioen erabilera eta kudeaketarako sarbidea izaten ahalko dute pertsona fisikoek, formalki eratutako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta irabazi-asmorik gabeko taldeek, nahiz eta talde horietako kideekiko independentea den forma juridiko batean arabera eratuta ez egon, baldin eta gune horietan jarduerak antolatzen edota halakoetan parte hartzen badute, honako helburu hauek izanik betiere:

- a. Herritar guztiek —nola emakumeek hala gizonek— auzo eremuan parte har dezatela sustatzea, eta parte-hartze hori generoaren, inklusioaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik egiten saiatzea.
- b. Iruñeko auzoetan asoziazionismoa garatzea, zainketa-sare soziokulturalak sortzeko eta emakumeen eta gizonen bizi kalitatea suspertzeko.
- c. Auzoetan elkarrekin bizi diren pertsonen eta kolektiboen interes zehatzen eta beharren arabera jarduerak sortzea, auzoetako emakumeen eta gizonen proposamenak eta interesak aintzat izanik betiere.
- d. Erabiltzailetzat hartuko dira, halaber, zentro komunitarioetako guneak, ekipamenduak eta instalazioak zentro komunitario horietan garaturiko jardueretako parte-hartzaile gisa erabiltzen dituzten pertsonak.

5. artikulua. Sarbidea erabilera jarraituko kolektibo gisa

Erabilera jarraituko kolektibotzat hartuko da erabilera jarraituko talde eskaeraren bat egin duena, hau da, aldizkako jarduera baterako eskaera egin duena, hurrengo ikasturteetan jarraitzeko aukerarekin, eta, nolanahi ere, hiruhileko bakoitzean hirutan baino gehiagotan eskatu duena. Gainera, halakotzat hartzeko, kolektiboak ikuspegi komunitarioa izan beharko du lokala dagoen auzoaren barruan.

Ikasturte bakoitza hasi aurretik, deialdi irekia eta publikoa egingen zaie kolektiboari eta elkartei, zentro bakoitza modu jarraituan erabiltze aldera. Erabilera jarraituak kolektibo horri eskatutako gunerako sarbidea emanen dio planteatutako jarduerak irauten duen bitartean.

Gainera, kideek —emakumeek eta gizonek modu orekatuan— inplikatu egin behar dute zentroaren kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako gaietan. Era berean, erabiltzen duten zentro komunitarioko kudeaketa batzordean kolektibo erabiltzaileen ordezkari gisa parte hartzeko aukera izanen dute. Ordenantza honetan jasotako eskubide eta betebeharrak guztiak ere izanen dituzte.

Iruñeko Udalaren antolamendu dekretuaren arabera eskumena esleituta duen zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez ebatziko da erabilera jarraituko kolektibotzat hartzen denetz. Ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie erabilera jarraituko kolektibo guztiei;

halaber, ordenantza honetan jasotako eskubideak eta betebeharrak jasoko ditu ebazpen horrek.

6. artikulua. Erabilera jarraituko kolektiboen baja

Zentroan jarduerarik garatzen ez duten erabilera jarraituko kolektiboei baja emanen zaie hitzarmen horretatik, nola ofizioz hala kolektiboaren ordezkariak eskatuta; horrela, zentro komunitarioak erabiltzen dituzten kolektiboekin lotutako informazioa eguneratuta egonen da beti.

Eskumena zer alorrek eduki eta hari egokituko zaio gaurkotze lan hori egitea, eta, horretarako, dagokion prozedura bideratuko du, interesdunaren entzunaldia barne.

7. artikulua. Zentrorako sarbidea erabilera puntualetarako

Zentro komunitario bat erabiltzen ahalko da pertsona fisikoek, formalki eratutako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta irabazi-asmorik gabeko kolektiboek eta taldeek antolatutako jarduketa edo jarduera puntualetarako. Erabiltzeko eskaera egin beharko da horretarako, eta bertan adierazi zer jarduera egin nahi den eta noiz.

Lagapen horiek kudeaketa batzordeak zedarrituko ditu, ordenantza honen 19. eta 25. artikuluek arautzen dutenarekin bat.

8. artikulua. Kolektibo eta pertsona erabiltzaileen eskubideak.

Zentro komunitarioaren erabiltzaile diren kolektibo eta pertsonak honako eskubide hauek izanen dituzte:

- a. Errespetuz tratatuak izatea.
- b. Zentro irisgarriak izatea fisikoki, psikikoki eta sentsorialki.
- c. Jardueren egutegiari eta jardueretarako sarbidea izateko prozedurei buruzko informazioa jasotzea, baita zentro komunitario bakoitzeko kudeaketa batzordeko arduradunei eta zentro komunitarioetan existitzen ahal diren lantaldeei buruzkoa ere.
- d. Erabiltzeko prestatutako guneak baliatzea ezarritako ordutegiarekin bat, salbu eta aldaketa bat eskatuko lukeen edozein inguruabar berezirik gertatzen bada.
- e. Egoki jotako kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea, ezarritako bidea erabilita, kudeaketa hobetze aldera.

- f. Aurkeztutako kexa, erreklamazio eta iradokizunen erantzuna jasotzea.
- g. Zentro komunitarioan jasota dauden datu pertsonaletara sartu, eta horiek aldatu eta ezerezte, datuen babesari buruzko legeek ezarritakoarekin bat.
- h. Instalazioak haien zerbitzura edukitzea, horiek erabiltzeko eta gozatzeko baldintza egokietan, betiere haien erabilgarritasunaren arabera.
- i. Lokalean bertan biltegitratzeko gune bat izatea, aretoak erreserbatu diren jardueretarako, bai eta horiek antolatzeke ere, ahal den guztietan, zentroaren jardueren eta edukieren arabera.
- j. Udalari exijitzea ordenantza hau bete dezan.

Entitate eta pertsona erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, informazioa eskuragarri edukiko dute etengabe euskarri eta bitarteko egokietan.

9. artikulua. Kolektibo eta pertsona erabiltzaileen betebeharrak.

Honako hauek:

- a. Instalazioak eta materialak behar bezala erabiltzea, zainduz eta zainaraziz, halako moduz non entitate edo pertsona erabiltzaileak edukiko baitu ardura desegoki erabiltzeagatik egotz dakizkiokeen kalteengatik. Sarbide sistemen, giltzen eta txartelen kudeaketa ona barne hartzen du, ez daitezen gal, honda edo behar ez bezala erabili.
- b. Gizalegezko portaera izatea, eta bizikidetza arauak errespetatzea, eta berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.
- c. Erabiltzen diren guneak eta materialak garbi eta ordenatuta mantentzea, eta guneak aurkitu ziren egoera berean uztea. Salbuespenezko egoera sanitarioen arabera egokiak izan litezkeen segurtasun eta higiene neurriak errespetatzea.
- d. Kudeaketa batzordeak ezarritako funtzionamendu arauak ezagutzea, betetzea eta betetzen direla zaintzea.
- e. Zentro komunitarioen gainean eskumena duen udal alorra jakinaren gainean jartzea zentro komunitarioan ikusitako anomalia eta gabezia oroz.
- f. Zentro komunitarioen kudeaketa partekatuan aktiboki parte hartzea.

- g. Jarduerak antolatzean, kudeatzean eta garatzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko moduko baldintzak ezartzen laguntzea, ezartzen diren bezalaxe.

III. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN JARDUERAK

10. artikulua. Xedapen orokorrak

Zentro komunitarioetan egin beharreko jarduerak taldean egin beharrekoak, irekiak eta irabazi-asmorik gabeak izan behar dute. Honelako jarduerak izanen dira: auzokoak, hezkuntzakoak, prestakuntzakoak, kulturalak, aisialdi eta denbora librekoak, eremuko pertsonen eta kolektiboen arteko berdintasunezko elkarbizitzaren aldekoak, eta, horien aniztasuna ezagutu eta aitorturik, beren arteko elkarreragina sustatzekoak eta, batez ere, eremuko pertsonen eta kolektiboen artean loturak sendotzekoak eta topaketak sustatzekoak.

Guneek moldakorrak izan beharko dute, hainbat jarduera egiteko aukera emate aldera, eta proposamen bakoitzaren premien arabera egokitzeko modukoak.

Iruñeko Udalak erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguru bat izanen du zentro komunitarioetarako, nola instalazioaren beraren ondorioz hala hark zuzenean sustatutako jardueren eraginez sorturiko istripuak estaltzeko. Zentro komunitarioak erabiltzen dituzten kolektibo, entitate eta pertsonak erantzule izanen dira hirugarrenei kalte pertsonalak eta materialak eragiten badizkiete zentroak erabiltzean eta kudeatzean gauzatutako jardueran.

11. artikulua. Irabaziak

Zentro komunitarioetan ezin izanen da egin irabazi-asmoko jarduerarik.

Salbuespen gisa, zentroak erabiltzen dituzten entitate, kolektibo edo pertsonen jarduera iraunkor jakin batzuetan parte hartzeko matrikularen ordainketa eskatzen ahalko dute. Matrikula horien ordainketa jardueraren ondoriozko gastuak (begirale gastuak eta gastu materialak) ordaintzeko erabili beharko da oso-osorik. Ez da inolaz ere onartuko matrikula horien zenbatekoak inolako irabazirik sortzea jarduera antolatu duen pertsona, kolektibo edo entitatearentzat. Entitateak bete beharko ditu antolatutako jardueraren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Jarduera puntualak irekiak eta doakoak izanen dira herritarrentzat.

Era berean, ezin izanen da produkturik saldu zentro komunitarioetan, ez zuzenean, ez zeharka. Salbuespen gisa, zuzeneko salmenta baimentzen ahalko da, baldin eta gizarte edo ongintza ekintza bat bada. Horretarako, beharrezkoa izanen da kudeaketa batzordeari aldez

aurretik jakinaraztea eta haren oniritzia izatea. Entitate antolatzailea arduratuko da salmenta horrek ekarritako balizko zerga betebeharez.

12. artikulua. Zentro komunitarioetan, eta Iruñeko Udalaren titulartasuneko gainerako zentro guztietan, debekatuta dauden jarduerak.

Iruñeko Udalaren titulartasuneko zentro guztietan, izan udal jabetzakoak, izan Udalak herritarrei edo kolektiboari eskainitakoak, berariaz debekatuta daude beste kolektibo batzuek Iruñeko Udalaren titulartasuneko espazioan gauzatzen dituzten jarduerak kaltetzen ahal dituzten ekitaldiak edo jarduerak, baita gainerako auzotarrei kalte egiten dietenak ere. Halakorik bada, debekua urratzen duen entitate edo pertsona antolatzaileak erantzun beharko du urraketak ekartzen ahal dituen zehapenen aitzinean.

Espresuki bazterturik daude ekitaldi erlijiosoak, izaera alderdikoia duten ekitaldi politikoak, giza eskubideak urratzen dituzten jarduerak edo izaera bortitzeko ekintzak edota jarduerak babesten dituztenak, bai eta jarrera edo ekintza matxistak, lgtbifobikoak edota arrazistak sustatzen dituztenak ere; interes pribatuko jarduerak ere ez dira onartuko. Era berean, baztertu egin behar da azpiegitura horiek erabiltzea, paragrafo honetan aipatzen diren jarduerekin lotutako material grafikoa edo bestelako edozein adierazpide erakusteko.

Zentro komunitarioetan, janari kontsumoa jarduera jakin batzuetara mugatzen da: berez hala eskatzen dutenak, baldin eta zentro komunitarioen helburu orokorren arabera badira. Horretarako, jarduera eginen den zentroko edo alorreko kudeaketa batzordearen oniritzia izan beharko da beti. Jarduera horiek egiteko, osasun arloan indarrean den araudia eta aplikagarria den beste edozein arau bete beharko da.

IV. TITULUA. FUNZIONAMENDU ARAUBIDEA. XEDAPEN OROKORRAK

13. artikulua. Guneen ezaugarriak

Zentro komunitarioen antolaketa honako irizpide hauei men egiten die: guneen balioaniztasuna, integrazioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kulturartekotasuna, inklusioa eta belaunaldiartekotasuna, irisgarritasuna eta sexu eta genero aniztasunarekiko errespetua.

Guneak partekatzeak izan behar dira, eta horietako bakar bat ere ez da izan behar erabiltzen ari den entitateak edo pertsonak bakarrik baliatzeak. Guneek men egiten diote funtzio eta erabilera anitzeko ikuspegi bati, eta pertsona zein entitate erabiltzaile ororen eskura egon behar dira, eskusibotasunik eta eskusiorik gabe, salbu eta sexu, adin eta abar jakinetako pertsonen erabilera mugatzea behar bezala justifikatzen bada.

Gune guztiak irekita eta erabiltzeko moduan egonen dira, salbu eta sarrera nagusia, biltegi funtzioa dutenak eta babesa behar duten materialak edo datu pertsonalak gordetzen dituzten tokiak (sukaldea, ordenagailuak, fitxategiak, etab.).

Ez Udalak, ez kudeaketa batzordeak, ez dute bere gain hartzen instalazioetan gerta litezkeen material edo objektu pertsonalen galera, lapurreta, ebasketa, erabilera desegokia edo kaltea.

14. artikulua. Biltegiatzea

Udalak gune jakin batzuk lagatzen ahalko ditu gauzak biltegiatzeko, zentroaren jardueren eta edukieren arabera. Jarduera bat garatzeko behar diren materialak biltegiatu behar dituzten kolektiboek alor eskudunari eskatuko diote horiek biltegiatzeko toki bat baimendu dezan.

Inolaz ere ezin izanen da biltegiatu osasunerako edota pertsonen eta guneen segurtasunerako arriskutsua den materialik, hala nola material piroteknikoa, toxikoa edo sukoia edo antzeko beste elementuak.

15. artikulua. Erabilerarako eta funtzionamendu onerako arau orokorrak

Zentro komunitarioa entitate, kolektibo eta talde guztiek erabiltzeko da, eta instalazio guztietarako sarbidean eta gozamenean berdintasuna bermatzen du. Entitateek jarduerak gauzatzeko erabiltzen ahalko dituzte beren guneak, eta entitate horietako batek ere ezin izanen du egoitza sozial gisa ezarri bere gunea, ezta erabilera eskusiborik eman ere.

Elkarbizitzarako eta baterako zaintzarako pentsatutako guneak dira. Animaliak egoten ahal dira legez ezarritako kasuetan, hala nola segurtasunari edo desgaitasuna duten pertsonen laguntzearekin lotutakoetan. Auzoetako kolektibo kalteberei zuzendutako jarduera sozioterapeutikoetan ere sartzan ahalko dira animaliak, baldin eta udaleko gizarte zerbitzuek edo beste zerbitzu publiko batzuek bermatzen badituzte jarduera horiek eta kudeaketa batzordearen oniritzia badute. Entitate antolatzaileak zaindu egingen du erabilitako guneak hartu ziren baldintza berberetan mantentzen direla.

Zentro komunitarioko guneetan ezin da substantziarik kontsumitu, eta erabiltzaile guztien — emakumeen zein gizonen — osasuna eta ongizatea sustatzen da bertan. Bizikidetza errazteko, zentroan gauzatutako jarduerak topaketa, partaidetza eta gozamen komunitariora bideratuta egonen dira.

Kudeaketa batzordeak zentro komunitarioetako instalazioen funtzionamenduari eragiten dioten gai espezifikoak proposatzen ahalko ditu zentro komunitarioetan, ordenantza honetan aurreikusitako funtzionamendu egokiari eta erabilera aproposari buruzko arauak osatze aldera. Eskumenak esleituta dituen zinegotzi ordezkariak onetsi beharko ditu, zentroko kudeaketa batzordearen oniritzia lortu ondoren betiere.

16. artikulua. Erabilerarako eta funtzionamendu onerako arauak ez betetzea

Nola erabilera arauak ez betetzeak hala gunea zio justifikaturik gabe erabiltzeari uzteak (lagapen jarraituen kasuan) edota gainerako erabiltzaileei edo zentroari berari kaltea eragiten ahal dieten jarduera arriskutsuak, gogaikarriak edo osasungaitzak egiteak berekin ekarriko du gunearen lagapena bertan behera uztea, dela adi baterako dela behin betiko, zentroa erabiltzen ez duen edo ordenantza honen erabilera baldintzak betetzen ez dituen pertsona edo entitatearen kasuan. Horretarako, lehenago espedientea izapidetu beharko da interesdunari entzunaldia eskainita, eta erabakia proportzionaltasun printzipioari jarraikiz hartuko da.

Zentro komunitarioen eskumena duen alorrak hainbat zehapen onetsiko ditu, larritasunaren arabera.

Horretarako, ekintza komunitarioaren esparruan eskumena esleitura duen alorrak jarraibide egokiak ematen ahalko ditu honako hauetarako:

- a) Baimenaren xede diren jarduketak ikuskatzea, zentro komunitarioaren programazioari eta baimena emateko ezarritako baldintzei jarraikitzen dietela eta ordenantza honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.
- b) Gauzatzen ari den jarduera kautelaz etetea, interesdunei entzun ondoren, baldin eta egiaztatzen bada ez dela behar bezala erabiltzen ari (zentro komunitarioa baliatzeko baldintzen arabera), funtzionamendu normalaren nahasmendua dagoela, giltzak etengabe galtzen direla edo bizilagunen arteko bizikidetza asaldatu egin dela.
- c) Zentro komunitarioa erabiltzeko baimena ezeztatzea, interesdunei entzun ondoren, gauzatu beharreko jarduerak zentroko beste erabiltzaileei edo bizilagunei ageriko eragozpenak eragin ahal dietenean, jarduerak arriskuak edo eragozpenak ekartzen dituztela jasota dagoenean, zentroaren kudeaketa batzordeari kontsultatu ondoren.

17. artikulua. Informazioa eta komunikazioa

Zentro komunitarioak eskura edukiko ditu bertan antolatzen diren jardueren berri emateko euskarriak. Ezin izanen da horretarako erabili, ez aterik ez hormarik, ez narriatzeko arriskua duen beste ezein gunerik. Zentroko jarduerak era bateratuan ezagutarazteko sistema egokiak sortuko dira.

Zentro komunitarioan gauzatutako dokumentazio, publizitate, irudi eta material orok hizkera inklusiboa erabili beharko du, irudi edo mezu diskriminatzaile oro saihesteaz gainera; halaber, kontuan hartu beharko ditu kultura, belaunaldi, sexu eta genero aniztasuna eta desgaitasuna duten pertsonak, eta irudietan eta edukietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dagoela ere bermatu beharko du.

Berariaz debekatuta dago zentro komunitarioan eduki arrazistak, xenofoboak, bortitzak, diskriminatzaileak, sexistak, lgtbifobikoak edo politiko alderdikoiak dituzten mezuak eta pertsonen intimitatearen kontrakoak hedatzea, bai eta irabazi-asmoa duten entitateen publizitatea egiten dutenak ere.

Alor kudeatzailera iritsitako iradokizunak, kexak eta gorabeherak kudeaketa batzordeari helaraziko zaizkio, bai eta horiekin lotuta hartu beharreko neurriak ere. Informazio hori biltzean, beti hartu beharko da barne «sexua» eremua —nahitaez erantzun beharrekoa—, datuak behar bezala ustiatzeko aukera egon dadin.

Urtean behin, kudeaketa batzordeak zentro komunitarioan egindako jardueren memoria bat eginen du, pertsonen buruzko datu guztiak sexuaren arabera bereizita, programazioaren berri emateko eta hura ebaluatze aldera. Hala, emakumeen eta gizonen kopurua ikusaraziko du, honako alderdi hauei dagokienez: parte-hartzea, kolektibo eta elkarte erabiltzaileen titulartasuna, kudeaketa eta jarraipen batzordeetan duten presentzia eta eragina, baliabide erabilgarrietarako sarbidea eta aintzatespen ekintzak (halakorik egonez gero).

18. artikulua. Guneen erabilerarako prozedura eta egutegiak

Zentro komunitarioetan espazioak erabiltzeko, eskaera bidali beharko zaio kudeaketa batzordeari, zeinak oniritzia eman, eta egutegia eta guneen erabilera antolatuko baititu, pertsona edo entitate interesdunari onarpena jakinarazteaz gainera. Sarbidea ukatzen bada, Udalak eman beharko du horren berri, arrazoiak azalduta betiere, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

Udalak mekanismoak jarriko ditu eskaera hori eskuragarri egon dadin pertsona eta kolektibo guztientzat.

Erabilera jarraitua eskatzen ahalko da (erabilera jarraituko entitatea izaki, 5. artikulua), bai eta erabilera puntuala ere (7. artikulua).

Zentro komunitarioan Iruñeko Udalak antolatutako jarduerak garatzen ahalko dira, baldin eta ordenantza honen 3. artikuluan jasotako helburuei jarraituz badiete, bereziki auzoetan ekimen sozialak eta kulturalak osatu eta koordinatzeko badiira, eta eragin positiboa badute nola emakumeen egoeran hala emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak desagerrarazteko jomugan, artikulua honetan ezarritako eskaera prozedura berari jarraituz.

Zentro komunitario bakoitzeko kudeaketa batzordearen funtzioa izanen da jardueren, ordutegien eta erabileren urteko egutegi bat ezartzea.

Egutegia egiteko, lehenik eta behin, finkatuta dauden erabilera jarraituak eta ordenantza honetan ezarritako sarbide irizpideak hartuko dira kontuan, eskatutako jarduera berriak ere onartuta betiere.

Horregatik, eta egutegi hori antolatzeko, eskaera egin duten taldeak ados jarriko dira guneen banaketarako, eta jarduerak askotarikoak izanen direla saiaturiko da, ordutegiei eta aretoen erabilerari dagokienez ahalik eta ekitate handiena bilatuta, eta entitate bakoitzeko ordu kopuruari mugak ezartzen ahalko zaizkio leku erabilgarria falta bada.

Zentroaren egutegi eguneratu bat egonen da —Iruñeko Udalaren webgunean argitaratua eta kontsultarako eskuragarri—, zentroa erabiltzen ari diren taldeen jarduerak eta ordutegiak adieraziko dituen, entitate eta pertsona erabiltzaileek guneak erabiltzea errazte aldera.

Erabilera baimenak emateko baldintza da gune libreak egotea horretarako. Gune eta ordu berberetan bi jarduera egitekoak izanez gero, bideak bilatuko dira, ahal delarik, horietako ezein bazter geratu ez dadin. 20. artikuluan jasotako sarbide irizpideen eta kudeaketa batzordeak aplikatu beharrekoen arabera arautuko dira halako kasuak.

Jarduerak horretarako justifikaziorik ematen badu, beste eremu batean dagoen zentro komunitarioen sareko zentro komunitario bat eskatzen ahal da herritar mota jakin batengana hurbildu nahian, eremuan bertan zentrorik ez egoteagatik, jarduera interes orokorrekoa izateagatik edo auzo jakin batean bereziki erroturik ez egoteagatik.

19. artikulua. Sarbide irizpideak

Honako hurrenkera hau ezarri da lehentasun irizpidetzat, garrantzi handienetik txikienera, jarduerak egiteko guneak lagatzeko:

- Jarduera zentro komunitarioa dagoen auzoan herri ekimen batek abiatu izana edo auzotarren interesekoa izatea.
- Inguruko hainbat talde edo baliabide biltzen dituen auzo sare edota komunitate sare batek antolatua izatea jarduera.
- Jarduera auzokide guztiei irekia izatea, bai eta hirian eragin sozial handikoa ere; bereziki baloratuko da eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunetan, batez ere eragin hori agerikoa bada zentro komunitarioa dagoen eremuan.
- Ahal den neurrian, familia kontziliazioaren alde egitea.
- Jarduera akuilua izatea aukera gutxieneko pertsonen partaidetza, irisgarritasuna, engaiamendu edota autonomia sustatzeko.

- Jarduera aretoaren leku eta edukierara egokitzea, irisgarritasun integraleko faktoreak kontuan hartuta.
- Aretoaren neurrietara egokituta egotea, mugatutako edukiera kontuan harturik.
- Jardueretan askotariko izaera proportzionalari eustea.
- Beste jarduera batzuekin bateragarria eta osagarria izatea.
- Ordena kronologikoa jardueraren eskabidean.
- Jardueran parte hartzen duten pertsonen kopurua.
- Eta beste zenbait irizpide, zerrendan ez aipatu arren kudeaketa batzordeak egoki jotzen ahal dituenak.

Bere lokalak dituzten entitate, kolektibo eta taldeek ez dute lehentasunik izanen zentroetako instalazioak erabiltzeko. Hori gorabehera, saiaturik da zentro komunitarioaren erabilera errazten, auzoari zuzendutako komunitate jarduerak egiteko guneak partekatzeari begira.

20. artikulua. Lokaletara sartzea

Baldin eta guneak lagapenean uzteak berekin badakar zentrora sartzeko edozein sistema erabiltzaileari eman beharra, eskatzailea izanen da sistema horren eta haren erabileraren arduradun, ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz. Debekatuta dago giltzen edo sartzeko bestelako sistemen kopiak egitea, eta horiek taldekideak ez direnei ematea.

Iruñeko Udalak une orotan jakinen du zein kolektibok duen zentrorako sarbidea, horretarako erregistro sistema espezifiko baten bidez.

Debekatuta dago sarraila edo erabiltzen den sarbide sistema aldatzea Iruñeko Udalaren baimenik gabe.

Zentro komunitarioa itxi eta irekitzeko ardura izanen dute hura erabiltzen duten lehenengo eta azken taldeek.

Zentroaren ezaugarrien arabera, aintzat hartzen ahal da Udaleko langileek bertan laguntza eman ahal izatea.

21. artikulua. Ordutegia

Zentro komunitarioen ordutegi orokorra hau izanen da: 8:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostegunera, eta igande nahiz jaiegunetan. 8:00etatik 24:00etara, ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan. Zentro komunitario batean Udaleko langileren bat badago esleituta, baliteke haren presentzia ordutegia ordutegi horren iraupen osoarekin bat ez etortzea, eta kudeaketa hitzarmen espezifikoan jasota geratuko da puntu hori.

Zentro bakoitzak ordutegi horren barnean duen programazioaren arabera egokituko du bere ordutegia, jardueren eta kolektiboen arteko elkarbizitza egokia ahalbidetze aldera.

Zentroa beste ordutegi batean erabiltzen ahalko da, salbuespenez, programatutako jarduerak hala eskatzen badute, betiere kudeaketa batzordearen oniritziarekin.

Kanpoko patioak edo eremuak —zentroaren instalazioen parte direnak— dituzten lokalen edota etxebizitza partikularrekin muga egiten duten lokalen kasuan, eta auzotarrekiko bizikidetzazaintze aldera, 22:00etatik aurrera ezin izanen da eragozpenak sortzeko moduko jarduerarik egin, salbuespen bakar batekin: interes bereziagatik eta salbuespenez kudeaketa batzordearen oniritzia duten jarduerak.

Edonola ere, bereziki zaindu beharko da zentro komunitarioen inguruetan bizi diren bizilagunen atsedenaldia.

22. artikulua. Kontserbazioa, mantentze lanak, erantzukizuna eta jasangarritasuna instalazioen erabileran

Udalak bere gain hartuko ditu zentro komunitarioetako kontserbazioa eta mantentzea, bai eta oinarrizko hornikuntzetarako altak eta horien mantentzea ere.

Udalak kontsumoak gainbegiratu ditu eta ohartaraziko die lokalen entitate eta pertsona erabiltzaileei haien kontsumo ardurak bat ez badatoz kontsumo arduratsuko irizpideekin, zuzendu ditzaten.

Lokalak erabiltzen dituzten entitate eta pertsonak ezin izanen dute obrarik edo higiezin aldarazten duen jarduketarik egin. Aurreko paragrafoan xedatutakoa bete ezean, Udalak bertan behera uzten ahalko du entitate edo pertsona arduradunak lokala lagapenean erabil dezan hartutako erabakia, halako moduz non erabiltzaileak ez baitu eskubiderik izanen kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eta erreklamazioa egiten ahalko baitzaio jarduketa horri legoziokkeen erantzukizunen gainean.

Jardueraren antolatzaileek ekipamenduren bat erabili behar badute, haien kontura izanen dira ekipamendu haren muntaketa, desmuntaketa, garbiketa, konexio, zaintza eta gainerako zerbitzuengatikoko gastuak.

Erabiltzaileek beren gain hartuko dute gune eta ekipamenduak erabili bitartean sorturiko kalte eta galeren erantzukizun osoa eta zuzenekoa, bai eta beste bulego batzuetan gertatutakoen eta beren jardueraren ondorioz pertsona fisikoek jasandakoen erantzukizuna ere. Emandako erabileraren erantzule izanen da kaltea edo narria gertatu den espazioan jardueraren bat garatzen ari den pertsona, kudeaketa batzordeak onetsitako egutegiaren arabera betiere.

Iruñeko Udalak ez ditu bere gain hartuko erabiltzaileek jasaten ahal dituzten istripuak edo kalteak, baldin eta horiek arau hauek ez betetzeak edo halako guneak behar ez bezala eta zuhurtziagabekeriak erabiltzeak eragindakoa badira.

Iruñeko Udala ez da arduratuko zentro komunitarioetan galdutako edo hondatutako objektu pertsonalez. Gune komunitarioetara objektu baliotsurik gabe joatea gomendatuko da. Gune komunitarioetan bildutako objektuak galdutako objektuetarako udal bulegoaren esku jarriko dira.

Hala Udalak nola entitate zein pertsona erabiltzaileek baliabide aski badagoela eta zentro komunitarioak higiene egoera egokietan daudela zainduko dute.

V. TITULUA. ZENTRO KOMUNITARIOEN KUDEAKETA

23. artikulua. Kudeaketa Batzordea

Iruñeko Udalaren azken erantzukizuna da udalerrian zentro komunitarioak eskaintzea eta zentro horien kudeaketa egokia ahalbidetzea —entitateekin, kolektiboekin, taldeekin eta horien erabiltzaileekin partekatua—, kudeaketa eta antolaketa bera emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta aniztasuna txertatzeko baliabidea bihurtzen dela bermatuta betiere.

Horretarako, zentro komunitarioek kudeaketa batzorde eta kolektiboen batzar bana izanen dituzte, talde erabiltzaileek lokal komunitario horien kudeaketan parte hartzeko eta inplikatzeko tresna gisa.

24. artikulua. Kudeaketa batzordearen osaera

Kudeaketa batzordea kide anitzeko organoa da, gune komunitarioen kudeaketa partekaturako sortua, eta hauez osatuta dago: Udalaren bi ordezkari edo gehiago —udal alor kudeatzaileak izendatuak—; eta parekidetasunez jokatuta, hitzarmena sinatu duten kolektibo edo entitateetako gutxienez bi. Emakumeen eta gizonen arteko osaera eta partaidetza orekatua erraztu eta bermatzeko formulak gaituko dira, kudeaketa batzorde bakoitzaren arabera (parte-hartzaileak adosteko bilera, zozketa, txandakako sistema, etab.). Nolanahi ere, partaidetza orekatutzat hartuko da bi sexuetako ezeinek % 60 gainditzen ez duenean eta, honenbestez,

ezein ez denean % 40tik beherakoa. Osaera orekatua eratu ezin bada, txosten bat egin beharko da, emakumeen eta gizonen arteko osaera orekatu hori zergatik ezin den bermatu azaltzeko.

Parte hartzeko organo hori, hierarkikoki, Iruñeko Udalaren barnean zentro komunitarioak kudeatzeaz arduratzen den alorraren mende dago hierarkikoki. Horrek berak batzorderako funtzionamendu eredu bat izanen du, gutxienez honako hauek arautu beharko dituenak: osaera, ordenantza honetan ezarritakoei gehitutako funtzioak, bileren maiztasuna, erabakiak hartzea, etab.

Batzordearen osaera eta funtzionamendua erregulatzeko arauak Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko dira, eta zentro komunitarioetan ere eskuragarri egon behar dira.

25. artikulua. Kudeaketa batzordearen funtzioak

Jarraian aipaturiko funtzioak betetzen ahalko dituzte zentroak erabiltzen dituzten kolektibo eta entitateek, edo Iruñeko Udalarekin partekatu, edo udalak berak egin ditzake, kudeaketa batzorderik ez badago edo bien arteko akordioak ahalbidetzen badu.

- Zentro komunitarioaren funtzionamenduaren etengabeko jarraipena, urtean behin gutxienez, eta kudeaketa batzordeak beharrezkotzat jotako aldi orotan.
- Ordenantza honen edukien interpretazioa eta zabalkundea, araubidean hutsunerik egonez gero.
- Egokitzeak joz gero, zentro komunitarioetarako erabilera eta funtzionamendu arau propioak sortzea, ordenantza arautzaile honetan jada ezarritakoen osagarri gisa, eta zinegotziak onets ditzan proposatzea.
- Guneak jarduera nola jarraitu hala puntualetarako usatzeko eskaerak jasotzea, eta gune horien erabilera ordenatua proposatzea. Bi alderdiek izanen dute eskaera horien berri. Horrek berekin ekarriko du erabileren egutegia zehaztea, guneak jarduera motara egokitu daitezela bilatzea, etab.
- Egindako jardueren buruzko datuak biltzea, sexuaren arabera bereizita.
- Urtean gutxienez bilera bat egitea eta hura zentroaren entitate eta pertsona erabiltzaile guztiei zabalik egotea. Deialdi hori, ahal dela, kudeaketa batzordea osatzen duten elkarte ordezkariak eginen dute, eta arreta berezia jarriko da deialdia pertsona guztiengana irits dadin, emakume eta gizon guztiengana, haien aniztasuna kontuan izanik.
- Zentroan jazo litezkeen gorabeherak edo gatazkak alor eskudunari jakinaraztea.

Funtzio horiek gauzatzeko, zentro komunitarioen kudeaketa batzordeak laguntza tresnak sortzen ahal ditu, zentro komunitarioaren erabiltzaile taldeez osatuta egonen direnak, gune komunitarioen kudeaketa partekatuan laguntze aldera.

Laguntza tresnek izen desberdinak izan ditzakete, eta partaidetza organoak dira. Horietan, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bultzatu, bermatu eta errazteko neurriak aktibatuko dira, eta, horretarako, neurri espezifikoak ezarriko dira, emakumeen parte-hartzea errazteko, bereziki, partaidetza baliabide horietarako sarbidea mugatuen duten emakumeena.

Horien izenak, kideak, funtzionamendu arauak eta funtzioak dagokion kudeaketa batzordeak zehaztuko ditu, Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko dira eta zentro komunitarioetan eskuragarri egonen dira.

26. artikulua. Kolektiboen Batzarra

Zentro komunitario bakoitzean, kolektibo erabiltzaile guztiek parte hartuko dute batzarrean, bereziki erabilera jarraituko kolektiboek.

Kolektiboen batzarra topaketarako eta zentro komunitarioaren funtzionamenduari dagozkion gaien kudeaketa kolektiborako gunea da.

Kudeaketa batzordeak batzar deialdi bat egin beharko du urtean gutxienez. Deialdia, ahal dela, kudeaketa batzordea osatzen duten taldeek egiten dute, gainerako kolektiboen ordezkari gisa. Nolanahi ere, urtean zehar beste deialdi batzuk egiten ahalko dira. Kolektiboen batzarraren deialdia egiteko eta haren funtzionamendurako, emakumeen, haurren, nerabeen edo haien ordezkari gisa diharduten taldeen parte-hartzea bultzatzeko, bermatzeko eta errazteko neurriak aktibatuko dira, batez ere parte hartzeko baliabide horietarako sarbidea mugatuen dutenen aldekoak.

Ahal dela, zentro bakoitzeko kolektiboen batzarrak hautatuko ditu kudeaketa batzordea osatuko duten talde ordezkariak, eta, horretarako, haren osaera orekatua bermatzeko neurriak aplikatuko dira. Erabilera jarraitukotzat jotako kolektiboen artean egiten da hori, eta batzarrean hartutako erabakia zentro komunitarioak kudeatzen dituen udal alorrera bidaliko da, kudeaketa batzordearen eraketa ofizialerako.

Subsidiarioki, prozedura hori ezinezkoa denean, kudeaketa batzordeko kide izanen dira, talde erabiltzaileen ordezkari gisa, horretarako proposaturiko erabilera jarraituko kolektiboak, eta horiek hautatzeko mekanismo egokiak ezartzen ahalko dira, bete beharreko plaza baino hautagai gehiago badaude.

27. artikulua. Iruñeko Udalaren funtzio eskusiboak

- Zaintzea Zentro Komunitarioa erabiltzeko interesa duen entitate edo pertsona orok aukera eduki dezala horra sartzeko, baldintzak betetzen baditu.
- Entitate eskatzaile interesdunari erabilera baimena eman ez bazaio, modu arrazoituan jakinaraztea ukapen hori entitateari.
- Erabilerari eta funtzionamendu egokiari buruzko arau orokorrak eta zentro komunitario bakoitzeko arau espezifikoak —halakorik egonez gero— betetzen ez badira, dagozkion zehapenak ezartzea.
- Zentro komunitarioan gerta litezkeen gorabeheren eta matxuren parteak kudeatzea.
- Zentroan obrei edo berritze lanei ekitea.
- Erraztasunak ematea eta elkarlanean aritzea zentro komunitario bakoitzaren barne erregelamenduan eta lankidetzak hitzarmenean erantsitako xedapen guztiak gauzatzeko eta betetzeko.
- Sartzeko giltzak eskura jarriko ditu Udalak, zentro komunitarioan baimendutako jarduerak egiteko, horiek kontrolatzeaz gainera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1.- Iruñeko Udalak espazio bati zentro komunitarioaren erabilera emateko, alkatearen dekretu bat onetsi beharko da, eta dekretu hori eta egiten ahal zaizkion aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

2.- Zentro komunitarioaren erabilera eman zaien espazioen zerrenda 2025eko abenduaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (246. zk.) argitaratu zen.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Zentro komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren —2019an onartutakoaren— babesean hitzarmen bat sinatu duten entitateek ordenantza honen bitartez araututakoari jarraituko diote, eta ez dute beste ezein hitzarmen sinatu beharko, harik eta haren indarraldia amaitu arte.

Hitzarmen horiek ordenantza honek ezartzen dituen betekizun guztien arabera egokitu beharko dira, ordenantza hau noiz onetsi eta bi hilabeteko epearen barruan berresteko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indarrrik gabe geratzen da Iruñeko zentro komunitarioak arautzen dituen ordenantza, 2019ko apirilaren 4ko Osoko Bilkuran onetsia eta 2019ko abuztuaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (152. zk.) argitaratua.

AZKEN XEDAPENA. INDARRALDIAREN HASIERA

1.- Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoarekin bat, ordenantza honek ez du ondorio juridikorik sortuko, harik eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuko nahiz Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateei haien egintzak eta erabakiak ezeztatzeko errekerimendua egiteko duten ahalmena gauzatzeko ezarritako epea (hamabost egun baliodun) iragan arte.

2.- Ordenantza honen testu osoa kontsultagai izanen da Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan.